

9. KOSTU EGITURA:

9.1. KOSTUAK

Gure enpresa martxan jartzeko hainbat kostu jasango ditu. Lehenengo, kostu aldakorrei erreparatuz, horrengoak ditugu: argindarra (adibidez, wifi tarifaren prezioa, erabiliko ditugun ordenagailuen korrante elektrikoa), gasa (berogailuentzako, edota sukalderako), ura (sukalde eta komunerako), soldatak (gure diru sarreren menpe igo edo jeitsiko baitira).

Beste aldetik, kostu finkoetan honako ezaugarriak ditugu: lokalaren ordainketa; maileguaren ordainketa eta haren interesen prezioa hasieran ezarritakoa izango da; ordenagailu, altzari eta material guztiaren kostua ere hemen sartuko da. Amaitzeko, gizarte segurantzaren ordainketa.

Zergak kontuan hartzeko dira, baina zehaztu gabe utziko ditugu, batzuk aldakorrak direlako eta beste batzuk finkoak. Gainera, soldatak ere finkoak izan ahal dira modu batean, izan ere, hileroko soldata minimo bat izango dugu langileok, eta gero, horren gainean diru sarreren arabera kantitate hori igo edo mantenduko da. Horregatik, kostu aldakorretan adieraziko da, baina kontuan hartzen finkotasun hori.

9.2. DIRU-SARRERAK

Beste atal bat diru sarrerak izango dira. Hemen, eskaintzen ditugun produktuen sailkapena dago, eta horren prezio unitateko, eta salduko diren unitate kantitatearen estimazioa ere. Horregatik, produktuen sailkapena hurrengoak izango da, bi produktuak izango ditugu:

Lehenengoa A produktua izango da. Honen zerbitzua doainekoa iznago da, hau da, sarrera arrunta, guztiok eskura izango dutena ain zuzen ere. Produktu mota hau oso eraginkorra izango da, eta gehien salduko dena hasieran, izan ere, bezeroak hasieran produktua bakarrik probatu nahiko dute, eta gustukoa bada, bigarren produktua aukeratuko dute.

Bigarren mota, B produktua da, "premium" izenekoa da. Honen abantailak hauek dira: iragarki gabeko zerbitzua, hainbat deskontuen aukera (kirol dendetan, polikiroldegietan eskaintzen diren zerbitzuetako prezioetan, etab) eta noizean behin zozketa batzuetan parte hartzeko aukerak (sariak geroago definituko ditugu, baina kirolarekin erlazionatuta egongo dira, esperientzia edota produktu fisikoak izan ahal dira).

